

BORTZIRIETAN PROIEKTUA BURUTZEN DUTEN IRABAZI-ASMORIK GABEKO ENTITATEEI DIRULAGUNTZA BANAKETA

I. XEDEA

Dirulaguntza honen helburua da Bortzirieta herrietan egiten diren eta Bortziriari eskainitako proiektuak diruz laguntzea.

Deialdiaren laguntza proiektu edo zerbitzuak finantzatzeko izanen da. Ez dira hitzaldiak diruz-lagunduko.

Entitate bakoitzak bi proiektu edo zerbitzu finantzatzeko eskaera egin dezake.

Proiektuak edo zerbitzuak 2024ko urtarriletik azaroa bitartean burutuak izan beharko dute, hau da, soilik kontuan hartuko dira urtarriletik azaro bitarteko gastuak.

II. ESKABIDEAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

Eskaerak aurkezteko tokiak: eskabidea behar bezala beterik aurkeztu beharko da.

- Aurrez aurre, Bortzirieta GIZARTE ZERBITZUEN Mankomunitatean (Andutzeta kalea, 15 3. solairua, Etxalar).

Ordutegia: astelehenetik ortziralerara 8:00etatik 14:00etara.

-Egoitza elektronikoko bidez, www.bortziriakgz.eus

Eskaerak aurkezteko epea: Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

Epez kanpo sartutako eskaerak edo bertze bideetatik sartutako eskaerak bazterturik geratuko dira.

III. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Eskaerak datu hauek jasoko ditu, daturen bat faltako balitz eskatzaileari utzitako harreman bideen bidez gehitzea eskatuko zaie:

Eskabide orokorra (instantzia ofiziala: eskatzailearen datuak eta harremanetarako bideak zehaztu eta entitate eskatzailearen datuak).

Proiektua: Burutu beharreko proiektuaren azalpena (proiektuaren edo jardueraren ezaugarriak, bete nahi diren helburuak, burutu beharreko jardura zehatzak, zer metodologia erabili behar den proiektua garatzeko, eta zer giza baliabide, baliabide material eta finantza-baliabide dauden, ...). Ezingo da datu pertsonal edo identifikagarriak eskaini. Eta 17/2019 foru legeak, Emakume eta

gizonen berdintasunerakoak, jasotzen duen moduan, sortzen diren dokumentu eta materialek zein zerbitzu edo programek hizkuntza inklusiboa eta berdintasun baloreak zein genero rol ez estereotipatuak edo erantzunkidetasun baloreak adierazi beharko dituzte.

Alderdi ekonomikoak eta beste agiriak:

- Proiektuaren jarduera bakoitzaren aurrekontua atal hauek, nahitaez adierazita:
 - Aurrekontuaren zenbatekoa.
 - Diru-sarreraren aurrekontua.
 - Dirulaguntza honetatik gutxi gorabehera kobratu nahi den diru-kopurua. Eta zehazki zertara bideratzeko asmoa dagoen.
 - Aipatu proiektua garatzeko bertze erakunde batzuek eman beharreko dirulaguntzak.
- Banku edo aurrezki kutxako ziurtagiria, kontu korrontearen zenbakia eta IFZa jasoko dituen diru-transferentzia egiteko.
- Nafarroako Gobernuako Elkartearen Erregistroan behar bezala erregistratuak egotea.
- Gizarte Segurantzarekiko eta Nafarroako Zerga Ogasunarekiko zerga guztiak kitatuak izatea.
- Bortzirietako udalekin (hau da, Arantza, Igantzi, Etxalar, Bera edo Lesakako udalekin) zorrik ez dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.

IV. ERABILIKO DIREN EBALUAZIO IRIZPIDEAK:

Dirulaguntzak emateko ebaluazio batzordeak alderdi hauek hartuko ditu kontuan:

- a) Dirulaguntza honekin lagundu nahi den proiektuaren interes soziala Bortzirietan: **Otik 12era arteko puntuazioa emanen da.**
 - Proiektua Bortzirietako zenbat herrietan eskaintzen da.
 - Bortzirietako onuradun kopurua (datuak sexuaren arabera bereiztu beharko dira)
 - Erabiltzaileen perfila
 - Hasetzen den beharra
 - Bortzirietako baliabideekin duten osagarritasuna, elkarlana
- b) Proiektua aurrera eraman duen entitateak Bortzirietan duen presentzia edo eragina: **Otik 8ra arteko puntuazioa emanen da.**
- c) Burutu beharreko jarduerak duten osagarritasuna maila profesionalean: **Otik 1era arteko puntuazioa emanen da.**

- d) Kanpoko bideragarritasun ekonomikoa, hau da, bertze entitateei dirulaguntzarik eskatzen ote zaion gastuetan laguntzeko. **0-tik 3ra arteko puntuazioa emanen da.**

V. ESKAEREN EBALUAZIOA

Dirulaguntzak emateko proposamena balioetsi eta egiteaz arduratuko den Batzordea Gizarte Zerbitzuko teknikariek eta idazkariak osatuko dute.

Laguntzarako eskubidea izateko nahitaezkoa izanen da gutxienez ere 9 puntu lortzea.

Laguntzarako eskubidea izan ondotik onuradunak uko egingo balio, Gizarte Zerbitzuari jakinarazi beharko dio horretarako eskaintzen diren komunikazio bideetatik. Eta beraz esleitutako diru kopurua beste eskatzaile onuradunen artean banatuko da.

Balorazioak egin ondotik falta den dokumentazioa eskainitako harreman bide idatziaren bidez eskatuko da. Falta den dokumentazioa aurkezteko 10 egun balioduneko epea emango da. Oinarri hauetan eskatu den dokumentazio guztia ez aurkezteak eskatzailea dirulaguntzaren onuradun izatetik kanporatuko du. Eta esleitutako diru kopurua beste eskatzaile onuradunen artean banatuko da.

Konpromisoak ez betetzeagatik, eta Batzordeak beharrezkotzat jotzen badu, dirulaguntza geldiarazteko eta itzultzeko eskatuko dio entitateari, honako arrazoi hauengatik:

- a) Dirulaguntza jasotzea baldintzak bete gabe.
- b) Nahitaez egin behar diren egiaztapenak errefusatzeko edo oztopatzea.
- c) Justifikazio ekonomikoa epe barnean ez aurkezteagatik edo/eta esleitutako diru kopuru guztia ez justifikatzeagatik.

Deialdi honekin lotutako gastuei aurre egiteko, 2024ko aurrekontuan kreditu egoki eta nahikoa dago.

Batzordeak proiektuen balorazioa egingen du, eta zehaztuko du eskatutako gutxienerako puntuazioak gainditu dituzten proiektuei zer zenbateko dagokien. Inoiz ez da eskatu baino diru kopuru handiagoa emanen.

Gutxienerako puntuazioak lortu dituzten entitate eskatzaileek eskatzen dituzten zenbatekoen batura deialdiko kredituaren parekoa edo txikiagoa bada, eskatutako zenbatekoa emanen zaio eskatzaile bakoitzari.

Batura hori deialdiko kreditua baino handiagoa bada, banaketa hainbanatu egingen da eskatzaileen artean. Horretarako, gutxienerako puntuazioak lortu dituzten eskatzaile guztien puntuak batuko dira, kreditu erabilgarria zenbateko horretaz zatituko da, eta horrela lortuko da puntuaren balioa. Eskatzaile bakoitzak jasoko duen zenbatekoa kalkulatzeko, balio hori lortutako puntuarekin biderkatuko da.

VI. ESKAEREN EBAZPENA ETA DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA

Balorazio batzordeak, eskaerak aztertu ondoren, eta Mankomunitateko Lehendakariaren ebazpen bidez, erabakia berretsi beharko du. Ondoren eskatzaileei jakinaraziko zaie jasoko duten dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa berehala egingen da.

2024ko azaroak 30erako jaso den diru kopurua eskatutako proiektuan erabilia izan dela justifikatzen dituzten fakturak aurkeztu beharko dira, baita proiektuaren memoria laburtua edo zerbitzuaren argazkiren bat ere, datu pertsonalik eman gabe.

Aurkezpena aurrez aurre, Gizarte Zerbitzuaren bulegoan (Andutzeta kalea, 15 3. solairua, Etxalar) edo egoitza elektronikoan egin beharko da. Betebehar hau egiten ez duenari dirulaguntza itzultzea eskatuko zaio osotasunean edo justifikatu gabe utzi duen kantitatean.

Agiri honetan aurreikusten ez diren kasuetarako, Batzordeak ebatziko du nola jokatu den.

Dirulaguntza banatzeko oinarri eta irizpide hauek 2024ko martxoaren 21ean eginiko Mankomunitateko bileran onetsiak izan dira.

SUBVENCIÓN PARA ENTIDADES SIN ÁNIMO DE LUCRO QUE LLEVAN A CABO EL PROYECTO EN BORTZIRIAK

I. OBJETO

Ayudar económicamente a proyectos que se llevan a cabo en Bortziriak y que las personas beneficiarias de dichos proyectos sean habitantes de Bortziriak.

Esta convocatoria está dirigida a financiar proyectos o servicios. No se admitirán solicitudes para financiar charlas.

Se podrán presentar dos solicitudes por cada entidad (las solicitudes presentadas fuera de plazo quedarán excluidas de la valoración).

El proyecto o servicio se tendrá que desarrollar durante los meses de enero a noviembre de 2024.
Es decir, se podrán presentar gastos realizados durante ese periodo del año.

II. LUGAR Y PLAZO DE SOLICITUD

La solicitud se deberá presentar por alguna de las siguientes vías:

-Presencial: Mancomunidad Servicios Sociales de Bortziriak (Andutzeta kalea, 15-3º. Etxalar).
Horario: de lunes a viernes 8:00-14:00

Sede electrónica: www.bortziriakgz.eus

El plazo de presentación: Será de un mes desde el día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Navarra.

Si no se cumple el plazo o la vía de presentación establecida, no se admitirá la solicitud.

III. DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR

En los proyectos se deberá presentar la siguiente documentación (si falta información se solicitará completarla mediante el contacto facilitado):

- Instancia general (instancia oficial: datos de la persona que solicita y contacto, datos de la entidad solicitante).

- Proyecto: Explicación del proyecto o servicio a realizar (características, objetivos, acciones, metodología, recursos humanos, recursos económicos y financieros...). No se podrá ofrecer datos personales de las personas beneficiarias ni información con que se les pueda identificar. De conformidad con lo dispuesto en la Ley Foral 17/2019, de 4 de abril, de Igualdad entre Mujeres y Hombres, se garantizará en toda la documentación y materiales que se generen, la utilización del lenguaje inclusivo, así como el empleo de imágenes con valores de igualdad entre mujeres y hombres, roles de género no estereotipados y corresponsabilidad en los cuidados.

- Aspectos económicos y otra documentación:

- Presupuesto del proyecto o servicio hay que exponer la siguiente información:
 - Cantidad económica
 - Previsión de ingresos para realizar el proyecto o servicio
 - Cantidad que se espera recibir de esta convocatoria y en qué se invertirá
 - Otras fuentes de financiación que se usarán para completar el proyecto o servicio
- Certificado de banco o caja de ahorros en el que conste el número de cuenta para cobrar la subvención y CIF de la entidad a efectos de realizar la transferencia.
- Estar debidamente registrado en el registro de Asociaciones del Gobierno de Navarra.
- Estar al corriente de pagos con la Seguridad Social y Hacienda Foral de Navarra.
- Estar al corriente de pagos con los Ayuntamientos de: Arantza, Igantzi, Etxalar, Bera y Lesaka. Aportar certificados.

IV. CRITERIOS DE EVALUACIÓN:

Los criterios que se aplicarán en la evaluación serán los siguientes:

- a) Interés social que cubre en Bortziriak **(0-12 puntos)**.
 - En cuántos pueblos de Bortziriak se desarrolla el proyecto o se ofrece el servicio.
 - Número de personas beneficiarias (datos segregados por sexo).
 - Perfil de las personas usuarias.
 - Necesidad que cubre, objetivos.
 - Complementariedad con los recursos locales.
- b) Presencia de la entidad gestora del proyecto o del servicio que tiene en Bortziriak **(0-8 puntos)**
- c) Complementariedad con la intervención profesional **(0-1 punto)**
- d) Viabilidad económica del proyecto, especificar si se solicitan otras ayudas para completar la financiación **(0-3 punto)**.

V. EVALUACIÓN DE SOLICITUDES

La Comisión evaluadora estará compuesta por las/los técnicas del Servicio Social y la Secretaria de la Mancomunidad.

Para poder optar a la subvención se requiere un mínimo de 9 puntos.

Después de ser beneficiario si alguna entidad renunciara a la subvención, tendrá que comunicarlo al Servicio Social mediante los canales ofrecidos por dicha entidad. Y por lo tanto este dinero concedido se repartirá entre las otras entidades beneficiarias.

Si la solicitud no reúne los requisitos indicados, el órgano instructor requerirá por escrito a la entidad interesada para que subsane, en el plazo máximo de 10 días hábiles. El no presentar toda la documentación requerida en dicha convocatoria, será razón para excluir de la concesión. Y por lo tanto ese dinero concedido se repartirá entre las otras entidades beneficiarias.

En caso de incumplimiento, o si la Comisión lo considera oportuno, se podrá paralizar el expediente de subvención y solicitar la devolución, por las siguientes razones:

- a) No cumplir con los requisitos.
- b) Rechazar o entorpecer las verificaciones a las que están obligados
- c) No presentar la justificación económica en plazo y cuantía

En los presupuestos del 2024 existe una partida económica para afrontar los gastos de esta convocatoria.

La Comisión, después de realizar la valoración de los proyectos, realizará el cálculo de la cantidad económica a conceder en relación a cada puntuación obtenida, siempre y cuando se supere el mínimo. No se concederá más ayuda económica que la solicitada.

Si la ayuda económica que se solicita en los proyectos o servicios que han llegado a una puntuación mínima no supera el total de la partida presupuestaria, se concederá la cantidad solicitada.

Si la ayuda económica que se solicita en los proyectos o servicios que han llegado a una puntuación mínima supera el total de la partida presupuestaria, se sumará la puntuación obtenida de los que han superado el mínimo y se dividirá el crédito a repartir entre esa cifra y así se conseguirá el valor de la puntuación. Para determinar la cantidad que se concederá a cada solicitud se multiplicará por la puntuación obtenida.

VI. RESOLUCIÓN DE LAS SOLICITUDES Y JUSTIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN

Las solicitudes evaluadas por la Comisión se ratificarán mediante Resolución del Presidente de la Mancomunidad de Servicios Sociales. Posteriormente se comunicará a las entidades beneficiarias la cantidad concedida y se realizará el pago.

Antes del 30 de noviembre de 2024 deberán presentarse las facturas que justifiquen la subvención concedida, así como memoria resumida y/o fotografías del proyecto o servicio ejecutado, sin mostrar a las personas beneficiarias.

La presentación de la documentación justificativa se realizará de forma presencial en las oficinas del Servicio Social (Andutzeta kalea, 15-3º. 31760 Etxalar) o en la sede electrónica (www.bortziriakgz.eus). A quien no cumpla con este requisito se le exigirá la devolución de la ayuda o la parte no justificada de la misma.

En los casos no previstos en el presente documento, se instará a lo que determine la Comisión.

Estas bases han sido aprobadas en la sesión celebrada por la Junta de la Mancomunidad, con **fecha 21 de marzo de 2024**.